

Euskal gatazkaren memoria mediatuak: gazteek iragan kolektiboarekiko dituzten pertzepzio eta posizionamendu estrategien analisi diskurtsiboa

Tesiaren egilea: Samara Velte

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saila

Doktorego-programa: Gizartea, Politika eta Kultura

Jakintza-arloa: Gizarte Antropologia eta Komunikazioa

Tesi-zuzendaria: Aitzpea Leizaola Egaña eta Josu Amezaga Albizu

Tesiaren laburpena¹:

ETAren behin betiko su-etenetik hamarkada batera, euskal gatazka armatuaren memoria eremu diskurtsibo disputatua da. Bien bitartean, iragan hurbileko biolentzien oroitzapen zuzenik gabe hazi den lehenbiziko belaunaldia helduarora iristen ari da, eta, harekin batera, gazteok iragan kolektiboaz dakitenari buruzko kezkek sortzen hasi dira. Tesi honek 1990eko hamarkadaren amaieran eta 2000ko lehen urteetan jaiotako 42 gazterekin egindako sakoneko elkarrizketen analisi diskurtsibo xehea, analisi bibliografikoa, eta behaketa parte-hartzailea bateratzen ditu, belaunaldi berri horretako kideek euren iragan kolektiboko biolentziekiko eraikitzen ari diren harremana aztertzeko. Euskal gatazkaren memoriaren eraikuntza eremu diskurtsibo gisara ulertzea planteatzen da, eta gazteek *eztabaida* horretan duten inplikazio falta bertan parte hartzeko sentitzen duten legitimitate faltaren terminoetan interpretatzen da. Legitimitate falta horren arrazoietan arakaturaz, belaunaldi horrek eskura duen erreperitorio diskurtsiboaren hutsuneetako zenbait identifikatzen dira; besteak beste, *gatazka* terminoa batik bat biolentzia fisikoaren agerpenarekin parekatzen duen makronarratiba baten existentzia; narratiba- eta esperientzia-aniztasuna kontsentsu sozialerako arriskutzat duen ikuspegi sozial hedatu baten presentzia; eta, oro har, gazteei gatazkarekin zeharkako edo bigarren mailako harremana dutela ulertarazten dien esperientzien hierarkizazio bat eta haren araberako posizionamendu sozial bat. Azkenik, gazteok euren testuinguru anitzetako diskurtsoekin interaktuatzeko erabiltzen dituzten estrategia psikolinguistikoetako batzuk identifikatzen eta aztertzen dira. Finean, argudiatzen da memoriatzko transmisio-politika formalik gabe ere hainbat modutara inplikatzeko direla gazteak, eta euren agentzia negoziatzen dutela euskal gatazkari buruzko eztabaidan.

1. Izenburua ingelesez: «Understanding the mediated memories of the Basque conflict: a discursive analysis of young people's perceptions and positioning strategies towards their collective past».